

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko urriak 17 • 1370 zenbakia

ARROK
TINAREKIN



URRUTIKO
MINA GERTU

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Aratzale 104 / 10001333

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 19 - 3.º esk. Eibar
943 20 72 17 / 460 42 29 08
amaia@amaiesnaoladentologia.com

arat.
DENT KLINIKA - CLINICA DENTAL

ZURE
IRIBARRE
ONENA

Toribia Etxeberria Kalea, 4
20600 Eibar
943 206 851
www.aratklinika.com

EIBAR - HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
RFE 1078

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

 **T: 943 70 00 82**

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / FAD
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZUHIAHRAIN OUDONTOLOGIA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bideberrieta, 7 - 1. esk. 943-782886

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 50
m.a.albistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodríguez
Montero doktorea

LARRIALDIK
ERE LANTZEN DITUGU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

FISIOTERAPEUTAK

AÑE MENDIA
108 kolegiata zkoa.

- FISIOTERAPIA
- KIDUEK LEZIOAK
- Puntzio erret. TRITURADURA
- K. erret. + DEPRESIONAK

ARRAZUETA, 20
Tfn: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiata zkoa.
I. Ojanguren, 2 678 746 617

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martínez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Argazkilaritzarekiko pasioa dute Fernando Solana eta Nerea eta Uxue aita-alabek. Fernando Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordeko arduraduna da eta alabek bere bidea jarraitzen dute kameraren atzean. Eta nola gainera! Saria lortu baitute Indalecio Ojanguren lehiaketan. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Irune Jaio

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Irune Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Txakurrentzat gune gehiago!

Eibarko Udalak txakurra izateagatik udal-tasa bat ezartzea aztertuko duela jakinarazi dute EAJ eta PSE gobernuko kideek. Onartzekotan zerga hau ezartzen eta eztabaidatzen duen lehenengo euskal udalerrria izango litzateke Eibar, Frantzia eta Espainian horri buruz hitz egin baita, esaterako Zamoran (onartu eta gero kendu egin zuten) edo Palentzian. Arrazioen artean garbiketa dago: udal-gobernuak adierazten du gure herrian gero eta txakur gehiago daudela eta garbiketa gehiago behar dela. Baina ez du hitz egiten jai guztietan kaletan pilatzen den zaborraz, edo zapatueta poteoa eta gero Untzaga plazan gelditzen den beiraz, ezta asteburueta ume eta nerabeek botatzen dituzten zikinkeria buruz ere. Betiko legez, gizakiok hitz egin ezin dutenei botatzen diegu errua, eta, jakina, erabaki honen atzean sare sozialetan egiten diren iruzkinak daude. Baina herri bat zikina baldin badago udalaren ardura da horren arrazoiak ezagutzeko azterketa bat egitea eta ez konponbide erraza hartzea. Hala ere, gustura ordainduko nuke nik udal-tasa hori horrekin batera txakurrentzako hobe-kuntzak ezarriko balira Eibarren; adibidez, haiei bideratutako toki gehiago prestatu. Hilaren 12an Marcan Huella elkar-teak antolatu zuen 'Txakurrak uretara' ekimenean hainbat eibartarrek hartu zuten parte, dozenaka txakur txipli-txapla ibili ziren eta askoz gehiagok jolastu zuten zelaian. Horrek adierazten du Debabarrenean txakurrek hondartza bat behar dutela, eta Eibarren elkarrekin jolasteko gune gehiago. Orain gune bakar bat baino ez dute lau hankako lagunek: Itzioko parkea. Bitartean, Ermuan gutxienez 3 daude. Txakurrek sor dezaketen zikintasuna ekiditeko, ez da izango eraginkorragoa haientzat gune bereziak sortzea? Gorotzak botatzeko zaka-rrontziekin, iturriekin eta Pegoran ematen diren plastikozko poltsekin?

Iker Mojón

Hortik esanak



Auzo handia da neurritz Martutene, eta landa eremuarekin iraganean izandako lotura ageri da muino berde eta base-rietan. Udalaren webgunean ageri denez, gune semirurala. XX. mende hasieran, ibaiari begira, aisialdia ardatz zuten etxejabe handiek lorategi hirian kokatu zuten euren bizilekua. Fatxada aireztatu zuri-beltzdun eraikin berri edo zaharberrietuekin gero eta *Minecraft*-eko pantaila traza handiagoa hartzen ari den hiriarekin alderatuta, bestelako jite bat du Martutenek. Iraganeko kapritxo arkitektonikoek salatzen dute garai bateko fortuna handien gustua oraindik ere zutik dauden etxe dotoreetan. Dena ez zen, ordea, hiri lorategia eta Martuteneko kaleek gordetzen dituzte langile jendearentzat eraikitako etxe sortak, uholdeak egon diren aldiro, urak hartu dituenak.

Aitzpea Leizaola, antropologoa

Gure gorputzetan «debekatutako atalak» daukaguzala sakon ikasi dogu, eta ondo barruan sartuta daukagu: alua, zakila, titiak, ipurdia... Kasurik gehienetan inoren aurrean erakusteak lotsa emoten deuskuenak eta naturaltasunez izendatu eta autuan erabili ezin ditugunak, sexualizatu barik. Geure gorputzeko zatiak dira, sudurra, behatzak, belauak edota belarriak diran legez, baina kosta egiten jaku gainerakoek normaltasunez tratatzea.

Javi Onaandia, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIPIA JOTEN BIZI → Kolperik jo gabe, lasai bizi. "Gu pipia joten bizi gaittuk. Uezabak guri berak nahi daben beste pagatzen jeskuk, ta, gero guk pe, geuk nahi dogun beste bihar egin".

PIPITTA / PEPITTA → Kimua agertu aurretik landareek eukitzen dutena. "Pinportak urtetzeko, lehelengo pipittia agertu bihar da".

1955

VeloSolex motordun bizikletak Orbean

50eko hamarkadan Eibarko bizikleta enpresa nagusiak ziklomotorrak egiten hasi ziren. Eibarren egindako lehena Motobic izeneko izan zen, 1946an. Frantziako Solex enpresari baimena eskatu eta gero, 1957an Orbea VeloSolex frantziarra komertzializatzen hasi zen, ondoren bere modelo propioa egiten hasteko.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

- BARIXAKUA 17**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 18**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- DOMEKA 19**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ASTELEHENA 20**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
- MARTITZENA 21**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 22**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- EGUENA 23**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- BARIXAKUA 24**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Fernando Anitua Etxebarria.** 2025-X-9.
- **Pastora Orbea Elorza.** 97 urte. 2025-X-11.
- **Lourdes Urzuriaga Bollar.** 68 urte. 2025-X-11.
- **Sacramento Muñoz Abad.** 90 urte. 2025-X-12.
- **Jordi Rubio Gomez.** 69 urte. 2025-X-13.
- **Roman Aragon Gomez.** 88 urte. 2025-X-13.
- **Victoria Esteban Hontaria.** 2025-X-13.



Udal gobernuko ordezkariak Udaltatzak hartutako erabakiaren inguruko azalpenak eman zituzten ezohiko bilkura amaitu eta jarraian. SILBIA HERNANDEZ

2026rako udal-tasak eta zergak %2,5 igotzea onartu du Udaltatzak

Aurreko barixakuan egin den ezohiko bilkuran, 2026ko ekitaldirako udal-tasa eta zergen eguneratzea onartu egin zuen Udaltatzak, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien aldeko botoekin. Horrela, 2025eko batezbesteko KPlaren pareko igoera, %2,5 ingurukoa aurreikusi dute. Elkarrekin Podemosek kontrako botoa eman zuen, eta Eibarko EH Bilduko ordezkariak abstenitu egin ziren.

SILBIA HERNANDEZ

Azalpenak emateko prentsaurrekoa bilkura amaitu eta jarraian eman zuten Jon Iraola Eibarko alkateak, Vanesa Hortas PSE-EEko bozeramaileak eta Alberto de la Hoz EAJ-PNVko bozeramaileak. Esandakoari jarraituta, “akordioarriker, Udalak zerbitzu publikoen jasangarritasuna zaindu, eta udal-prestazioen kalitatea mantendu ahal izango du, karga fiskalak herritarrentzat neurritz kanpoko igorarik ekar ez dezan”.

Iraolak azpimarratu duenez, “Udalaren finantza-egonkortas-

“Urteetan igo ez diren udal-tasa eta zergen eguneraketa beharrezkoa da, Udalaren inbertsio-mailari eusteko, eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitu ahal izateko”

una bermatzeko unea dela uste dugu. Udaleko diru-sarrerak nahikoak direla bermatu behar dugu, gure zerbitzu eta inbertsioen mailari eusteko. Eguneratze hau neurrizkoa, orekatua eta beharrezkoa da”.

Alberto de la Hoz EAJ-PNVko bozeramaileen berbetan, “gure taldearentzat tasen igoerek bat etorri behar dute gainerako faktore ekonomikoekin, eibartarrak ez itotzeko eta ez kaltetzeko. Gobernu taldeko kide izanik, negoziatzioa arinagoa izan da”. Horrez gain, ostalari eta merkatariek espazio publikoa okupatzeagatik ordaintzen dutena berrikusiko dutela aurreratu du, “gure asmoetako bat oinezkoei lehenasuna ematea da eta”. Proposamen berri batzuk dauzkatela gaineratu zuen bozeramaile jeltzaleak: “Eibarren bizi ez direnentzat TAOa ezartzeko eta Eibarren bizi direnentzat txartelak emateko aukera aztertuko dugu. Gainera, txakurrak edukitzeagatik udal-tasa sinbolikoa ezartzeko aukera aztertuko da. Tasa hori hiri-altzariak garbitzeko eta konpontzeko baliatuko genduke. Eta kiroldegiko tasetan egin daitezkeen berrikuspenak ere aztertuko dira”.

Zerbitzu batzuk igoeratik kanpo

Vanesa Hortas sozialisten bozeramaileak azaldu duenez, igoera ez da zerga guztietan aplikatuko, hainbat salbuespen daude eta: “Hainbat zerbitzu publiko igoera orokorretik kanpo geratuko dira, hala nola zinema komertzialaren prezioak, udal-merkatuak, ibilgailuen erretiratzea, hiri-garraioa, Udal Kirol Patronatua, tutoretzapeko etxebizitzak eta Armagintza Museoa, irisgarritasun ekonomikoari eta Eibarko errealtate sozialarekiko koherentziari eusteko”.



Arreta Psikosozialaren Programaeskainiko dute ikasturte honetan ere

S.H. 2024-2025 ikasturtean 100 adineko baino gehiagok hartu zuten parte Arreta Psikosozialaren Programan eta, “oso arrakastasua” dela ikusita, ikasturte honetan ere martxan jarriko dutela iragarri dute Udaletik. Programak adinekoen autonomia eta ongizate emozionala sustatzea du helburu, eta taldekako zein banakako saioak konbinatzen ditu. Era berean, parte-hartzaile bakoitzaren jarraipen pertsonalizatuari esker, ahultasun-egoerak goiz detektatzeko eta gizarte-isolamendua prebenitzeko aukera ematen du. Saioak herriko lau zentro sozialetan (Ipurua, Urki, Beheko Tokia eta Untzaga) egiten dira. Ikasturte berriak izen-ematea zabalik dago herriko lau zentroetan.

Debabarreneko Gazta Azoka egingo da domeka goizean Untzagan

S.H. Debabarreneko Gazta Azoka ospatuko da domeka goizean Untzagan. Eibarko Udalak antolatzen du urteroko azoka hau, Debemen Debabarreneko Landa Garapen Elkartearen eta azokan parte hartuko duten ekoizleen laguntzarekin batera. Goizeko 10:00etatik 14:30era egingo den azokan eskualdeko gaztagile hauek egongo dira: Mutrikuko Goienetxe (ardi gazta), Sorluzeko Egotza (ahuntz gazta), Elgoibarko Mausitxa (ardi gazta) eta Eibarko Mandiola Gañekua (ardi gazta). Elgoibarko Lizagasar Sagartogixak ere hartuko du parte, sagarretik ekoizturiko produktuekin (sagardoa, marmelada, sagar dultzea, sagar-ozpin ekologikoa...).



Urriaren 17tik 26ra

ASTEKLIMAKO INTERESGUNEAK

Urriak 17 - 26
Udal Liburutegia (Portalea)

Klima-aldaketari buruzko liburuak eta helduentzako zein haurrentzako irakurketa-gida



KLIMA ALDAKETARI BURUZKO TAILER ZIENTIFIKOAK FAMILIAN

Urriak 24
17:00 – 19:30 (Errebal Plaza)
Zientzia- eta ingurumen-fenomenoak ezagutarazteko esperimendu praktikoak. Plaza mugatuak. 5 urtetik aurrera. Iraupena: 25 min. Bost txanda aukeran, 17:00etatik 19:00etara.

ESPEZIE EXOTIKOAK KONTROLATZEKO JARDUNALDIA ETA INTERPRETazio-IBILALDIA

Urriak 26
9:30 – 13:30 (Urkora igotzeko aparkalekua, Izua)

Espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko jardunaldia egingo da eta, ondoren, lehengorazten ari diren lurrak bisitatuko dira, baso-ekosistemetik klima-aldaketaren aurrean dituzten erantzunei buruz hitz egiteko.

Izen-ematea: Urriaren 23ra arte
info@lurgaia.org

*Adierazi parte-hartzaileen izen-abizenak, adina eta telefono bat.

Kolaboratzaileak: Lurgaia Fundazioa eta Eibarko Baso Biziak



Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako 60 ikasle titulatu berriren graduazio-ekitaldia

S.H. Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalean 2024-2025 ikasturtean titulatu berri diren ikasleen graduazio ekitaldia egin zuten aurreko astean Eibarko Hezkuntza Esparruko areto nagusian. Ekitaldian, Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako XI. Promozioaren 60 ikaslek jaso zituzten diplomak, horrela euren ikasketen amaiera ospatuz. Dantza erakustaldi batekin amaitu zuten ekitaldia.



1958an jaioetako eibartarren ospakizuna

Aurreko asteko eguenean ospatu zuten euren kinto-jaia aurten 67 urte bete edo beteko dituzten eibartarrek. Untzagan elkartu eta, talde argazkia egin eta gero, txikiteoan ibili ziren. Bazkaria Arkupen egin zuten.

Laguntza tekniko espezializatu berria, kale-garbiketa hobetzeko

S.H. Debabarreneko Mankomunitateak laguntza teknikorako zerbitzu espezializatu bat jarri du martxan, “kale-garbiketa hobetzeko eta eraginkorrago bihurtzeko”. Ekimen horren bidez “zerbitzu gardenagoa eta herritarren beharretara hobeto egokitutakoa” eskaini nahi du Mankomunitateak: “Laguntza tekniko berriarekin, kale-garbiketa efizientzia handiagoz eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik kudeatuko da”, diote. Funtzio nagusien artean, zerbitzuaren kalitatea neurtzeko eta hobetzeko sistema jarriko da martxan: datu zehatzetan oinarrituko da, eta emaitzen jarraipena egiteko hainbat tresna erabiliko dira. Bestalde, lanean bertan egingo diren behaketek garbiketa-zerbitzuaren egungo egoeraren argazki zehatza eskainiko dute. Gainera, herritarrei egingo zaizkien galdetegien bidez, iritziak eta hobekuntza-proposamenak jasoko dira zuzenean. Eta, azkenik, garbiketa-ibilgailuek sortzen dituzten datuak aztertuko dira, baliabideak hobeto antolatu eta lana modu eraginkorragoan egiteko.





Zientzia-tailerrak eta espezie exotiko inbaditzaileen kontrolerako jardunaldia antolatu dituzte Asteklimaren baitan

S.H. Datorren barixakuan (urriaren 24an) *Klima-aldaketaren inguruko zientzia-tailerrak familian* ekimena egingo da Errebal Plazan, 17:00etatik 19:30era bitartean. Antolatzaileen berbetan, “esperimentu praktikoek bidez, hainbat fenomeno zientifiko eta ingurumenekoen berri emango da, irtenbide jasangarriei buruzko hausnarketa bultzatze aldera”. Euskaraz izango dira, 5 urtetik gorako umeentzat, eta aukeratzeko bost txanda egongo dira.

Horrez gain, urriaren 26an, domeka, Lurgaia Fundazioa eta Eibarko Baso Biziak elkarteekin elkarlanean, espezie exotiko inbaditzaileen (EEI) kontrol-jardunaldi

bat egingo da. Orain dela bi urte sortutako Pagaegikorta proiektua ere bisitatuko da, “aldaketa globalean basoek duten eraginaz hitz egiteko”. Herritar guztientzako moduko jarduera da, lau ordu ingurukoa. Urkora igotzeko apartakalekuan elkartuko dira, Ixuan, 09:30ean. Plazak mugatuak dira, eta izen-emateak urriaren 23ra arte egin ahalko dira, info@lurgaia.org helbidera mezua bidaliz (partehartzaileen izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefono bat adierazi). Aipatutakoekin batera, Udal Liburutegian interesgunea prestatu dute, aldaketa klimati-koari buruzko hainbat libururakin, baita irakurketa-gida bat ere.

Lourdes Urzuriaga Andirao elkarteko presidentea eta zinegotzi-ohia hil egin da

S.H. Zapatuan hil zen Lourdes Urzuriaga Bollar, 68 urte zituela. Andirao Baserritarren elkarteko presidentea izatez gain, 1987ko ekainaren 10eko hauteskundeetan zinegotzi hautetsia izan zen (EA) Eibarko Udalean. Arrate bailarako Sumendixa Goikua baserriko alaba, Eibarko baserritarren premiak asetzeko lan handia egin zuen: Andirao elkartearen izenean Udalarekin bost urterako akordioa sinatu zuen 2022ko azaroan, horrela baserritarren eskaerei erantzuteko 1.750.000 euroko partida jasotzea ziurtatuz. Hortik kanpora ere, oso ezaguna zen, urteetan Mapfre aseguru-etxearen Eibarko bulegoko arduradun modura jardun baitzuen beharrean, orain dela urte gutxi batzuk erretiroa hartu zuen arte. Goian bego.



Anbulatorioko fatxada zati bat bota behar izan dute

S.H. Domeka arratsaldean burbulla moduko bat atzeman zuten San Juan kalera ematen duen anbulatorioko fatxadan eta, erortzeko arriskua saihesteko, botatzea erabaki zuten. Horretarako, suhiltzaileei deitu eta kalea itxi behar izan zuten.







Palestinako herriarekin bat



Palestinako herriari elkertasuna adierazteko eguna izan zen urriaren 15ekoa Euskal Herri osoan, baita Eibarren ere. “Genozidioarekin negoziarik ez. Langileok Palestinarekin!” goiburupean LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT, Etxalde eta HIRU sindikatuak antolatutako lanuzteei ELA sindikatuak CIG (Galiza) eta Intesindical (Katalunia) sindikatuarekin batera deitutakoak gehitu zitzaizkien. Lanuzteei lotutako mobilizazio nagusiak hiriburuetan izan arren, eguerdian ELA-k elkarretaratzea egin zuen Eibarren, Untzaga plazan, “Israeli boikota” goiburuari jarraituta. Eta, Gernika Palestina herri ekimenak antolatuta, arratsaldean burrunbak egin ziren Euskal Herriko herri guztietako plazetan, baita Eibarren ere, “Palestinarekin Konpromisoa. Genozidioa STOP!” lelopean.

Horrez gain, Eibar Palestinarekin plataformak antolatutako manifestazio jendetsua egin zen domekan Eibarren.





Palestinaren aldeko lanuzteen testuinguruan, Yousef Alhelou Gazako kazetariaren “Gazako feni-xa” film dokumentala proiektatu zuten Coliseoan.



Berbetan jaialdia errepikatuko da martitzenean Errebalen

...eta kitto! Euskara Elkarateak irailerako zuen aurreikusita ikasturte hasierako Berbetan jaialdia, baina hasi eta handik minutu gutxitara bertan behera gelditu behar izan zen eguraldi txarrarengatik. Hori dela-eta, berriz ere antolatuko du jaialdia ...eta kitto!-k. Hurrengo martitzenean izango da, urriak 21, 18:00etan hasita 19:00ak arte. Oraingoan, Untzagan egin beharrean Errebal Plazan izango da, badaezpada ere. Jaialdiak, bestela, ez du aldaketarik izango. Disko Arima musika festa izango da eta DJ Michelek girotuko du arratsaldea. Sarrera libre eta doakoa izango da.

Izen-emateak zabalik

Bien bitartean, Berbetan eta haren bueltako Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetan izena emateko epea zabalik dago. Euskara praktikatu nahi dutenentzat Berbetan eskaintzen du ...eta kitto!-k, astean behin ordubetez euskaraz lasai berba egiteko taldeak, hain zuzen. Familian euskara txertatu eta familia-giroa euskaldundu nahi dutenentzat Gurasoak Berbetan programa dago eta euskara jakin ez baina euskarara eta euskal kulturara hurbildu nahi dutenentzat, berriz, Ongietorri eskaintzen du ...eta kitto!-k. Informazio gehiagorako euskara elkartera jo daiteke (943200918 / elkartea@etakitto.eus).



Bertso Paper lehiaketa martxan da

Aurten XXXI. ediziora iritsiko da San Andres bertso-paper lehiaketa. Honezkero zabalik dago lanak entregatzeko epea eta parte-hartzaileek azaroaren 7ra arte izango dute horretarako aukera. Urtero moduan bi maila izango ditu lehiaketak: 16 urtetik beherakoentzat (eibartarrei irekia) eta 16 urtetik gorakoa (Euskal Herri mailan). Irabazleek azaroaren 28an Coliseon egingo den San Andres Bertso Jaialdian jasoko dituzte sariak. Aurten boskote ederrak jardungo du Mikel Arrillagaren esanetara: Joanes Illarregi, Sustrai Colina, Alaia Martin, Unai Iturriaga eta Eneritz Artetxe. Sarrerak egunean bertan salduko dira Coliseoko leihatilan 8 eurotan.

Plastiko magikoaren ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Urriaren 28an, martitzena, Illunabarrian egitasmoaren ikasturteko lehenengo saioa antolatuko du ...eta kitto!-k. Plastiko magikoa deritzon materiala erabiliz, eta beroaren laguntzaz, hainbat gauza egin ahal izango dira: belarritakoak, giltzatak... Ikastaroa ...eta kitto!-n egingo da (Urkizu 11 solairuartera) 18:30etik 20:00etara. Izen-ematea online egin daiteke (www.etakitto.eus), telefonoz deituta (943200918) edo emailaz (elkartea@etakitto.eus). 7 euro balio du eta 5 euro euskara elkarreko bazkideentzat.



IZENA EMATEKO

“Telefono mugikorrarekin alderatuz, argazkiak kamerarekin egitea beste kontu bat da”

NEREA, UXUE eta FERNANDO SOLANA • Argazkilariak



Nerea Solana Dominguez izan da 8 eta 16 urte arteko parte-hartzaileen artean irabazlea XXXVIII. Indalecio Ojanguren argazkilaritza sarietan. ‘El beso’ da bere argazkiaren izenburua, baina, Fernando aitak esan digunez, Uxue ahizparekin batera ateratako argazkia izan da. Kontua da, biek jaso dutela aitak argazkilaritzarekiko duen pasioa.

Testua eta argazkiak **EKHI BELAR**

Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Bikiak dira Nerea eta Uxue, eta argazki-kamera berdina daramate soinean, Kodak txuri bat. Fernandok, aitak, esperientzia gehiago du argazkilaritzan (Deporreko argazkilaritza batzordeko presidentea da) eta Canon markako makina ekarri du gurera. Argazkilaritzarako ezinbestekoa da kamera edukitzea, baina garrantzitsuena argazkilariaren begia eta trebezia dira.

Indalecio Ojanguren argazki-lehiaketan saria jaso duzue. Nola hartu duzue? Ezustean harrapatu zaituzte?
UXUE: Pozik hartu dugu.

NEREA: Oso pozik gaude. Argazkilaritza asko gustatzen zaigu eta horrelako sari bat jasotzea oso garrantzitsua da guretzat.

Jasotzen duzuen lehen saria da?

NEREA: Niretzat bai.

FERNANDO. Uxuek irabazi du zerbait aurretik, Eibarren egiten den argazki-rally batean.

‘El beso’ da argazkiaren izenburua. Zer ikusi daiteke bertan?

UXUE: Pixka bat kasualitatez egin genuen argazkia. Jolasten geunden eta Nereak argazkian ikusten den

elizaren kupula bakarrik nahi zuen atera, baina ni aurrean nengoen eta, kupula atera nahi zuenez, kamera mugitu eta horrela atera zen argazkia.

FERNANDO: Argazkian bikotea eta zuhaitza agertzea txiripazko zerbait izan zen, berak eguzkia eta kupula atera nahi zituelako. Erdi-jolasean, beste enkoadroaketa bat lortu zuen, erakutsi zigun eta polita iruditu zitzaidan. Potentziala ikusi nion argazkiari, zerbait irabazi zezakeela pentsatu nuen.

Izan ere, argazkian bikote bat musukatzen ikusi daiteke eta pentsa daiteke nahita dagoela hor jarrita.

FERNANDO: Hainbat gauza elkartu ziren momentu berean, kasualitatez. Zortea eduki behar da. Batez ere konposizioari eta argiei dagokienez, gauza asko elkartu ziren une berean.

Argazkia egin eta gero, nolakoa izan zen edizio-lana?

FERNANDO: Argien eta zeruaren parametroak pixka bat moldatu nituen, baina argazkiak ez zuen edizio-lan askorik eskatu. Ia-ia atera bezala aurkeztu genuen argazkia.

Eurek argazkia egiten ari ziren bitartean, aholkuak eman zenizkien?

FERNANDO: Argazki-kamera laga nien eta beste



Argazkilaritzarekiko pasioa dute Solana aita-alabek.

gauza batzuetan nenbilen, ez nengoen euren argazkiari oso adi. Euren kabuz gauzak egitea nahi nuen, jolastea. Badakite zerbait.

Aitak esan du berehala ikusi ziola potentziala argazkiari. Zuek ere horrela sentitu zenuten?

BIEK: Bai.

NEREA: Normalean ez ditugu horrelako kasualitateak izaten eta polita izan zen hori horrela ematea.

Fernando, zuk parte hartu duzu aurtengo Indalecio Ojanguren lehiaketan?

FERNANDO: Aurten ez. Iaz bai eta ez nuen ezer lortu. Parte hartzera animatu ditut herriko lehiaketa delako, eta nik neuk ere egin beharko nuke, garrantzitsua baita horrelako lehiaketetan parte hartzea.

Sariarekin zer egingo duzue?

UXUE: Oraindik ez dakigu.

FERNANDO: Bazkariren bat egin beharko dugu ba!

Nabari da argazkilaritzarekiko pasioa transmititu diezula alabei, baina zu, Fernando, noiz hasi zinen argazkilaritzan?

FERNANDO: Eurak jaio zirenean hasi nintzen serioago. Argazki-kamera erosi eta familiako argazkiak egiten hasi nintzen. Gero, argazki artistikoagoekin edo

“Argien eta zeruaren parametroak pixka bat moldatu genituen, baina argazki irabazleak ez zuen edizio-lan askorik eskatu. Ia-ia atera bezala aurkeztu genuen argazkia”

landuagoekin, orain dela bost edo sei urte hasi nintzen. Hasierako argazkiak momentuak gogoratzeko ziren, beste barik. Euren kasuan, argazki-rallyetan parte hartzen hasi ziren eta argazki-kamerak erosi genizkien, eta hor dabilta.

Zuei beti gustatu izan zaizue argazkilaritza?

UXUE: Aitaren kamerarekin jolasean hasi ginen eta azkenean zaletasuna garatzen joan gara.

Aipatu dituzuen argazki-rally horiek nolakoak izaten dira?

NEREA: Gai batzuk zehazten dituzte eta horren in-

BIDEOA



guruko argazkiak egin behar dituzu denbora jakin batean.

Argazki saritua Tolosan (Frantzia) dago eginda. Normalean, bidaiatzen duzuenean, argazkiak egiteko ohitura duzue?

UXUE: Bai, normalean paisaiak ateratzen ditugu, baita monumentuak ere, baina pertsonak ez ditugu ateratzen.

Eta bestela, egunerokoan, argazkiak egiteko ohitura duzue?

UXUE: Ez, normalean bidaietan bakarrik egiten ditugu. Baita rallyetan ere.

FERNANDO: Nik bai, noizbehinka. Hirietara joateko ohitura dut, kale-argazkilaritza gustatzen zaidalako: hirietako bizitza, jendea... Paisaiak ateratzea ere gero eta gehiago gustatzen zait. Momentuan dudan umorearen arabera gauza bat edo bestea egiten dut.

Argazkiak egitekin zer gustatzen zaizue gehien?

UXUE: Argazkiak gordetzea oso ondo dago gero bidaiak gogoratzeko. Bestetik, telefono mugikorrarekin alderatuz, argazkiak kamerarekin egitea beste kontu bat da, oso ondo irteten dira.

Argazkiak egiten ikasten da gehien agian, baina hortaz aparte, argazkilaritzaren inguruan irakurtzen duzue, gehiago formatzen zarete...?

FERNANDO: Etxean gazteei zuzendutako argazkilaritza-liburuak ditugu eta, noizbehinka, YouTube tutorial batzuk ikusten ditugu. Akuilu lana egiten dut (barreak).

NEREA: Bai, argazkiak egiteko forma ezberdinak erakusten dizkigu, teknika ezberdinak... Iaz, adibidez, konposizio trianguluarra zer den ikasi genuen. Hau da, hiru puntu berdinean jartzea trianguluarren forma eginez eta rallyan hori egiten saiatu ginen.

Argazkiak egiteko orduan, estilo jakin bat duzuela esango zenukete?

FERNANDO: Nik ez daukat estilo definitu bat. Nire bidea bilatzen ari naiz oraindik.

UXUE ETA NEREA: Guk ere ez dugu estilo jakinik.



“Pentsatzen dut eurentzat oso zaletasun polita izango dela. Izan ere, gauza ezberdinak lantzen dituzu eta, gainera, toki ezberdinetan”, dio Fernandok

Argazkilaritzaren munduan bide profesionala garatuko duzue ala zaletasun moduan bakarrik ikusten duzue?

UXUE: Nik zaletasun bezala ikusten du argazkilaritza.

FERNANDO: Nire adinarekin, baita nik ere (barreak).

Pentsatzen dut eurentzat oso zaletasun polita izango dela. Izan ere, gauza ezberdinak lantzen dituzu eta, gainera, toki ezberdinetan (txango bat egiten, mendian, hirian...). Aukera asko daude zaletasun hau lantzeko eta argazkilaritza beste jardueren batzuen gehigarria izan daiteke.



Atletismo erakustaldia egingo da Untzagan eta Txaltxa Zelain. EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

Egun bakarra ez da nahikoa Depor Eguna ospatzeko

Bihar da Depor Eguna, baina, 100 urtetik gora eta hainbat arlo jorratzen dituen erakundea izanik, Eibarko Klub Deportiboari egun bakarra motz geratzen zaio bere egun handia ospatzeko. Horrela, atzo (eguna) Jesus Gutierrezek 'Ego Ibaiaren garrantzia Eibarko historian' izeneko hitzaldia eskaini ondoren, bihar eta etzi hainbat ekintza egingo dira.

Testua EKHI BELAR

Deporrek egun osoko egitaraua prestatu du bihar bere egun handia ospatzeko. Hasteko, 10:00etan, espeleologia egingo da Ego errekan. Horretarako, aurrez izena emateko beharra dago www.deporeibar.eus webgunean. Parte-hartzaileak Depor Tabernan elkartzeko dira eta bakoitzak bere frontala eraman beharko du.

Gero, 10:30ean, atletismo erakustaldia hasiko da Untzagan eta Txaltxa Zelain. 11:00etan, hainbat gauza egingo dira Toribio Etxebarria kalean. Batetik, xake partidak eta xake erraldoia, baita umeentzako txirrindularitza ginkana ere, eta squashean egiteko aukera ere egongo da. Gainera, Deportonbolia eta denda jarriko dituzte.

Untzagan, 16:00etan, umeentzako sarea eta eskalada egingo dira. Eta, ondoren, dantzarako aukera egongo da. Batetik, 18:00etan, dantzaldia egingo da Kezka eta Jare (Gasteizko Manuel Iradier) dantza taldeen eskutik. Plaza Barriatik egingo dute irteera eta Untzagan eta Toribio Etxebarria kalean eskainiko dituzte emanaldiak. Eta, batetik, 20:30ean, erromeria egongo da, Toribio Etxebarrian, Emepebost taldearen eskutik.

Domekako ekintzak

Domekan, 08:30ean, Udaberritaila hasiko da Depor paretik, Kalamua Korrikalari taldearen eskutik. Antolatzaileen berbetan, ibilbide erraza izango da. Euren kalkuluen arabera, parte-hartzaileek 3 ordu eta 3 ordu eta erdian egingo dituzte ibilbidearen 14,6 kilometroak, eta 835 metroko desnibel positibo metatua gainditu beharko dute.

Udazkentaila Toribio Etxebarria kalean hasiko da, 08:30ean, eta toki berean amaituko. Doako jarduera izango den arren, aurretik izena eman beharko da antolatzaileei lana errazteko. Antolatzaileek honako materiala eramatea gomendatzen dute: mendian korrika egiteko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura, jateko zerbait eta jarduera ondo egiteko beharrezko ikusten den beste edozein material.

Ibilaldia egiten den bitartean, 11:00etan, pilota egongo da As-telena frontoian. Goizeko Izarra pilota-taldeko eta Deporrek pilotari kadeteen eta jubenilen hiru partida, hain zuzen ere.

Kirol eta kultura arloko ekintzak egingo dira Eibarko Klub Deportiboaren egun handia ospatzeko

“Udaletxearen arkupearen azpian harrizko arku biki bat dago”

INÍGO ARIZAGA • Eibarko Klub Deportiboko Espeleologia taldeko kidea



Depor Egunaren barnean, espeleologia jardunaldia antolatu du biharko Eibarko Klub Deportiboak goizeko hamarretan. Eibarko errekan barrena ibiliko dira, zorupea zeharkatuz. Parte hartu nahi izanez gero izena eman beharra dago.

Testua **IRATI ALVAREZ**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Katiuskak eta frontala jantzita, herriko lurrazpian barrena murgiltzeko aukera izango dute herritarrek bihar, zapatua. Depor Egunaren harira, Eibarko Klub Deportiboak espeleologia jardunaldia antolatu du. Saioa 10:00etan hasiko da, eta parte-hartzaileek Eibarko errekan barrena ibilbidea egingo dute, lurrazpiko pasabideak zeharkatuz. Jarduera Eibarko Klub Deportiboko Espeleologia taldeak antolatu du, eta taldeko presidentea, Inígo Arizaga, izango da gidarietako bat.

Nola azalduko zenioke gaiaz ezer ez dakienari labur zer den espeleologia?

Lehenik eta behin, ondo pasatzeko modu bat da. Hori garbi dago. Hasteko, leizak eta kobak bilatzen eta aztertzen ibiltzen gara. Esplorazio lana amaitzean, topografia lanekin hasten gara: planoak egin eta abar. Askotan arkeologia aldetik zer dagoen ere ikusten dugu. Zuloetako azterketa konpleto bat egiten dugu, finean.

Zer motatako “zuloak” ditugu herrian?

Inguruan oso politak ditugu. Alde horretatik zorte handia dugu. Izarraitz aldean gehienbat. Eibarren mordoxka daude, nahiko txikiak dira, baina euren historia daukatenak (gerra zibilean jendea ezkutatu zen kobazuloak daude). Esandakoa, Izarraitz aldean daude kobazulo handi zein txiki esanguratsuenak.

Eibarko Klub Deportiboaren Jaian espeleologia jar-

dunaldia antolatu duzue. Zer egiteko asmoa duzue bertan?

Jardunaldi nahiko bereziak dira ez baikara kobazulo batera joango. Ego ibaia lur azpitik doa gaur egun Eibarren, guztiz tapaturik dago. Ikuspuntu horretatik, koba bat bezalakoa da. Orduan, Ubitxatik sartuko gara, autopistaren zubiaren paretik, eta, gauzak ondo irten badira, Tas-tasen parean irten nahi dugu (Julian Etxeberria kalean). Ikusiko dugu irteten garen edo bidean geratuko garen (barreak).

Horrelako ekintzak arriskutsuak dira?

Ez, ez! Hori bai, sartu nahi den kobaren arabera teknika behar duzu eta material egokia ere bai (sokak, esaterako). Zapatu honetakoa arrisku gabekoa izango da. Hankak ez bustitzeko katiuskak eraman behar dira soilik. Beraz, edonork eman dezake izena.

Espeleologia jarduerak nolako harrera dute herrian?

Jendea harritu egiten da. Gauza nahiko interesgarriak ditugu lur azpian. Ibai hau ez zen tapatu duela 10 urte, XIX. mendean baizik. Orduan, zenbait tunel oso zaharrak dira. Hasieran, zementozko bidetik sartuko gara eta Untzagara heltzean Ermutik datorren Ego ibaia-ekin bat egingo dugu. Zati hori oso interesgarria da. Udaletxe azpian dauden tunelak oso oso dotoreak dira. Udaletxearen arkupearen azpian harrizko arku biki bat dago, udaletxekoa baino politagoa dena, nire ustez. Udaletxeko arkuak bolobilak dira, baina sabaia zapala da eta behean daudenak, aldiz, lauza harrizko bobedak dira, elizetan erabiltzen direnen modukoak.

BIDEOA



Udaletxearen lurrazpia. EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ESPELEOLOGIA TALDEA.

Jendeak famatutzat ditu Edinburgon dauden subteraneoak, eta hain urrun joan gabe, Eibarren baditugu garai bereko gauza nahiko kuriosoak. Gainera, pintada polit batzuk ere badaude.

Herritarrok erabat ezezaguna dugu gure herriaren lurrazpia.

Udaletxetik Julian Etxeberria kalera bitarte kale guztiak izendatzen dituzten kalerteekin markaturik daude. Kalean bezala, kaleen izenak ikusi daitezke, baina azpitik.

Sorpresarik espero duzue?

Beti agertzen da arratoiren bat, baina esan beharra dago nahiko garbi dagoela dena. Lehengoan bertan izan ginen dena prestatzen eta bene-benetan diot garbi dagoela. Ur zikin guztia kolektorera bideratuta dago. Bakarra dago hartu gabe, Elgetako bidearen parean albo batek datorren ur zikina. Lastima da, zeren eta horrek ur guztia zikintzen du. Hala ere, nahiko garbi dago. Sartu ginen azkenengo aldian, orain dela bost urte inguru, Elgeta bidearen parean karramarroak zeuden, pentsa!

Garbitasun horrek animalia gehiago erakar ditzake. Demaseko fauna, bai. Nik arratoiak eta karramarroak soilik ikusi ditut. Saguzarrik ez dut oraindik ikusi, baina egongo dira seguruenik.

Bada aipatu nahiko zenukeen punturik?

Ibaiaren gainean eraiki denean, herri guztia altxatu da. Erreka parean gure herri zaharraren ondakin batzuk gelditzen dira. Untzagatik dexente beherago joanda labaderoak toki batean ikusi daitezke, adibidez. Baina, beno, ia gauza denak desagertuta daude.

Gauzak horrela, zer esango zeniekete herritarrei?

Bada etortzeko. Katiuska on batzuk jantzi eta ederki pasako dugula!



Iñigo Arizaga espeleogogoia. IRATIALVAREZ

“Jendeak famatutzat ditu Edinburgoko subteraneoak. Eibarren baditugu garai bereko gauza nahiko kuriosoak”

“Kalean bezala, kaleen izenak ikusi daitezke, baina azpitik”

Juan Zubiaurre izan zen lehen eibartarra Hiru Haundiak probako helmugan

EKHI BELAR

Joan den zapatuan, urriak 11, Hiru Haundiak proba lehiatu zen. Parte-hartzailek 100,37 kilometro eta 10.530 metroko desnibela zuen ibilbidea bete behar izan zuten, eta 24 orduko epea zuten horretarako. Tartean, Aizkorri, Anboto eta Gorbeako tontorrak gainditu behar izan zituzten, probaren gogortasunaren seinale.

Hainbat eibartar izan ziren Araiako irteeran eta, horietatik, Juan Zubiaurre Acha izan zen lehena Murgiako helmugan, 12:17:26 denborarekin. Lehen emakumea, bestalde, Ibone Azkarraga Zubizarreta izan zen, 18:47:32 denborarekin.



Julen Martinez de Estibariz, Hiru Haundiak probaren irabazlea. HIRU HAUNDIAK

IZENA	Aizkorri km59	Anboto km63	Gorbea km88	HELMUGA
ZUBIAURRE ACHA, JUAN	(12) 1:13:33	(13) 7:37:29	(12) 11:15:15	(12) 12:17:26
EGURROLA URUÑUELA, ANDER	(55) 1:21:41	(39) 8:25:11	(41) 12:35:14	(52) 14:03:50
SANTAMARIA BARRIGON, SANTI	(188) 1:35:39	(189) 9:59:45	(187) 14:46:50	(197) 16:37:28
OCHANDIANO ALCEBRECA, UNAI	(372) 1:49:38	(311) 10:56:36	(326) 16:39:58	(341) 18:38:36
AZKARRAGA ZUBIZARRETA, IBONE	(124) 2:10:04	(92) 11:55:07	(43) 17:14:19	(48) 18:47:32
FERNANDEZ URRARTE, IAN	(373) 1:49:39	(387) 11:36:26	(377) 17:21:36	(363) 18:59:43
GUTIERREZ DE LUIS, RUBEN	(375) 1:49:42	(388) 11:39:11	(378) 17:21:34	(364) 18:59:43
AZKARRAGA ZUBIZARRETA, ANDER	(667) 2:10:31	(417) 11:55:53	(379) 17:22:22	(368) 19:09:31
LUQUE CARBALLO, ION	(669) 2:09:56	(411) 11:51:19	(390) 17:31:04	(441) 20:07:35
SAN ANDRES FERNANDEZ, ASIER	(797) 2:20:58	(576) 13:02:28	(496) 18:57:58	(507) 21:09:48
PEREZ PEREZ, IRENE	(162) 2:19:49	(95) 13:09:35	(86) 19:21:05	(85) 21:44:41
SALASKETA ETXEBERRIA, EDUARDO	(770) 2:18:06	(622) 13:22:14	(590) 19:58:05	(603) 22:43:44
ANSORREGI ARAMBERRI, ANITZE	(154) 2:18:09	(111) 13:40:17	(112) 20:39:35	(113) 23:22:57
CHICHES RODRIGUEZ, ISAK	(671) 2:10:41	(644) 13:44:32	(632) 20:51:49	(629) 23:25:52



Depor eta GCBT elkarlanean arituko dira

E.B. Datorren denboraldian txirrindularitzako Sub23 - Elite talde berri bat jaioko da: Gran Canaria – EKD Bike Team. Eibarko Klub Deportivoak eta Gran Canaria Bike Team-ek (GCBT) urriaren 6an lortutako akordioari esker sortu da proiektu berria eta datozen denboraldietarako elkarlana egitea adostu dute.

Proiektu honekin Kanariar Uharteetako eta Euskal Herriko txirrindulari gazteen garapena eta proiektzioa bultzatu nahi da. Horrela, talde kanariarreko txirrindulariek nazio mailako egutegiko lasterketan maizago parte hartu ahal izango dute (adibidez, Valenciaga Oroitzarrean).



Malape Tabernak sendo jarraitzen du lidertzan

E.B. Logikari jarraituz, Malape Tabernaliderrak Baserri azken sailkatua jipoitu zuen Futbol Zaletuaren 5. jardunaldian eta lidergoan sendo jarraitzen du, 15 punturekin. Orain arte, 20 gol sartu ditu liderrak eta bakarra jaso.

Bar Maremek atsedena hartu zenez, Xania Taberna kokatu da 2. postuan 12 punturekin eta hurrengo jardunaldian lehen bi sailkatuek elkarren kontra jokatu dute, domekan, urriak 19, 10:30ean.

Hauek dira hurrengo jardunaldiko gainerako partidukoak: Adahi Etxegi - Limpiezas Rueda (bihar, 09:00), Bar Marem - Kalaka Buenos Aires (bihar, 10:30) eta Garajes Garcia - Baserri (etzi, 09:00).

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 15 puntu
2. Xania Taberna, 12 puntu
3. Bar Marem, 10 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 10 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 6 puntu
6. Adahi Etxegi, 3 puntu
7. Garajes Garcia, 3 puntu
8. Limpiezas Rueda, 0 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Eibarko Errealzaleak lagunarteak bere 27. urteurrena ospatu du

E.B. 27 urte bete ditu eta Jaiki elkarte gastronomikoan bazkaria eginez ospatu zituzten urteak.

Bertan, Realean aritu ziren Sonia Lopez eta Alberto Albistegi eibartarrak eta Alberto 'Bixio' Gorriz atzelaria egon ziren (599 partidu jokatu ditu Realean), eta baita Juantxo Trecet ere.

Trecetek atezain modura egin zuen bidea Realaren harrobian, baina futbola laga behar izan zuen istripu batengatik eta klubeko lan-

gilea izan da 40 urtez baino gehiagoz. Orain, erretiroa hartu du eta Eibarko Errealzaleen esker ona jaso zuen asteburuan.


Zapatuko ekitaldian, gainera, Juanito Berazari kamiseta bat oparitu zioten omenaldi gisa. Realzale amorratua, Eibarren zaletu txuri-urdinei tokia eman die Manuel tabernan eta lagunarteak egin dituen 27 urteetan berebiziko lana egin du. Horrela, lagunarteak omenaldia egin dio asteburuan, egindako lana eskertuz.

Aiako Harria parke naturalera irteera

E.B. Eibarko Klub Deportiboko mendizaleek Arditurri meatze multzoa, Erroillbide mendia eta Endara urtegia ezagutzeko ibilaldia egingo dute, urriaren 25ean. Guztira 11,5 kilometroko irteera egingo da Aiako Harria parke naturalean, goraka eta beheraka metatutako desnibela 790 eta 555 metrokoa izango delarik, hurrenez hurren. Irteera 08:00etan izango da eta 17:00etan itzultzea aurreikusten dute.

Izena eman ahal izateko, Deporreko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkideak ez direnek 20 euro.

Horretarako, hiru modu egongo dira: emaillez, mendia@deporeibar.com helbidera idatzita; aurrez aurre, klubaren bulegoan ordaintzeko aukera egongo da, edo 943 20 19 04 zenbakira deituta, martitzenetan eta eguenetan, 19:00etatik 20:00etara.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

1. Maila

EIBAR - Real Sociedad (etzi, 12:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Las Palmas - EIBAR (bihar, 21:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Beasain - EIBAR B (bihar, 16:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Athletic Club B - EIBAR B (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Zarautz - EIBAR C (bihar, 12:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Euskalduna - URKI (etzi, 17:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Lazkao (bihar, 18:00)

Erregionaleko 1. maila (gi)

URKI B - Elgoibar (gaur, 20:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Alaves (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Arenas (etzi, 16:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

C. Durango - URKI (bihar, 18:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Adahi Etxegi - L. Rueda (bihar, 09:00)
- Marem - Kalaka Bs AS (bihar, 10:30)
- Garajes Garcia - Baserri (etzi, 09:00)
- Malape - Xania (etzi, 10:30)
- Atsedena: Bergara Pneumatikoak

ESKUBALDIA

Zilarrezko Maila (em)

Bera Bera - EIBAR ESKUBALDIA (etzi, 12:15)

1. Maila Nazionala (gi)

E. ESKUBALDIA - Trapagaran (bihar, 19:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

Saieko - EIBAR ESKUBALDIA B (bihar, 18:15)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

EIBAR ESKUBALDIA B - Ordizia (bihar, 12:30)

SASKIBALDIA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

ART. JUANTXO - Etorri Aldapa (bihar, 14:30)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

Ordizia - EIBAR SASKI. (bihar, 12:30)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala

URBAT - Dos Hermanas (bihar, 20:15)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Eibar RT - Santboiana (etzi, 11:00)

Albiste gehiago



SD Eibar klubari Areitioko kirol-hiriari buruz galdetzeko 500 akzio gehiagoren bila

E.B. Beti Eibar elkarteak urriaren 23an egingo du Urteko Batzarra, 18:30ean, Armeria Eskolan, eta ekimen bat jarri du martxan hurrengo asteotarako. Izan ere, SD Eibarren 2025eko Batzar Nagusiari begira, Areitioko kirol-hiriari buruzko galderak egin nahi ditu eta, klubeko kontseiluak bere ekimenez sartzen ez baditu, kapitalaren % 5 beharko du galdera osagarriak sartzeko. Hau da, 2.310 akzio behar ditu kapitalaren % 5 edukitzeko eta, horretarako, 500 akzio gehiago lortu behar ditu.

Elkarteak adierazi duenez, “atxikipen-prozesua berehala jarri behar da abian, SD Eibar-en estatutuek bost eguneko epea ezartzen baitute, Batzar Nagusiaren deialdia argitaratzen denetik aurrera, eskaera osagarriak aurkezteko, eta ia 500 akzio jasotzeko tarte laburregia da”.

Gauzak horrela, elkartekide ez dena eta ekintzen % 5 lortzeko ekimenarekin bat egin nahi duena

info@betieibar.eus helbide elektronikoaren bidez jar daiteke harremanetan elkartearekin. Kide direnei dagokienez, Beti Eibar elkarteko arduradunak haiekin harremanetan jarriko dira atxikimendu-sinadura eskatzeko.

Areitori buruzko galderak

Ekimen horren bitartez, SD Eibarrek Areition sortu duen kirol-hiriaren inguruan bi galdera egin nahi da klubaren Batzar Orokorrean. Alde batetik, Areitioko behin-behineko kostuak zeintzuk diren jakin nahi dute. “Obrak amaitzeko aurreikusitako kostuei buruzko informazio zehatza eta hasieran onartutako aurrekontuarekiko desbideratzeen azterketa”, euren berbetan. Eta bestetik, negozio-plana zein den jakin nahi dute. “Kirol-hiriaren plan espezi-fikoaren aurkezpena, etorkizuneko jasangarritasun-ildo estrategikoe-kin eta proiektzio ekonomikoekin”, diotenez.



IÑAKI UGARTEBURU

Kirol praktika egokia

Behin baino gehiagotan idatzi dut kirol praktikak izan ahal dituen onuren inguruan. Kirola maite dut eta nire bizitzan kirolak protagonismo handia izan du.

Gaur planteatzera nator kirol praktika egokia egitearen beharra; edozein adinetan, egiten duguna egiten dugula, arriskuak daude eta praktika desegokiek ondorioak eduki ditzakete.

Haurtzaroan, espezializazio goiztiarra oso arriskutsua izan daiteke, praktikatzen den kirolaren arabera, gorputzaren alde batek bestea baino gehiago indartzen duelako, goiko atalean edo behekoan eragina handia duelako, etab. Haurtzaroan konpentsazio lana eskatzen du, estimulazioa osatu beharra dago eta, bestela, ondorioak betirako izango dira. Lan hauek ez dira batere errazak eta denbora eta baliabideak eskatzen dituzte.

Nerabetasunean, oso modan jarri da indar entrenamendua; eta ona da indarra lantzea, baina ez edonola. Jakin badakigu adin kronologikoaren eta biologikoaren artean salto handia egon daitekeela. 15 urteko bi lagun artean 3-4 urteko diferentzia egon daiteke adin biologikoan. Kontu handiz ibili beharko lirateke nerabeak indarra entrenatzerakoan, eta ez hartu erreferentzia gisa lagunak egiten duena, arriskutsua izan daitekeelako. Nerabetasunean gorputza guztiz egin gabe dago eta larregizko pisuak edo ariketa ondo ez egiteak ondorio larriak utzi ditzake.

Pertsona helduen artean indar entrenamendurekin lotutako praktikak ere modan daude. Bazter guztietatik esaten digute lan aerobikoa egiteaz gain, ezinbestekoa dela indarra lantzea, gutxienez astean bitan. Modan dago indar entrenamendua, mugimendu funtzionalak eginez, intentsitate handiarekin. Kasu honetan gogorarazi nahi dut teknikak garrantzi handia duela. Pisu egokiak erabili, indarra landu, baina mesedez teknika zaindu.

Hasieran nioen bezala, egiten dugun kirola egokia izan behar da, egokituta gure adinera, gorpuzkerara, osasun egoerara, esperientziara.

Albokoari kopiatzeak arrisku handiak ekar ditzake. Egun, profesional oso onak ditugu gure inguruan gure praktika bideratzeko eta, horrez gain, baita informazio egokia lortzeko bideak ere.

Disfrutatu kirolaz!!!

“Egiten dugun kirola egokia izan behar da, egokituta gure adinera, gorpuzkerara, osasun egoerara, esperientziara”

“Irakurle askori piztu zaie euren familiaren iraganari buruz gehiago jakiteko gogoa”

ALAITZ MELGAR • Idazlea



Alaitz Melgar (Barakaldo, 1984) idazlea izan da Harixa Emoten euskarazko irakurle-taldearen ikasturteko lehenengo gonbidatua. “Josefa, neskame” izenburupean neskame aritu zen amamaren inguruko saiakera osatu du Melgarrek eta, horrekin batera, ikerketa-bidaia propioa ere egin du, bizi zen artean amamak ez baitzien bere bizitzari buruzko ezer kontatu. Debako Udalak eta Elkarrek elkarlanean antolatzen duten Tene Mujika bekari esker idatzi du liburua.

Testua **MAIDER ARANBERRI**

Amamaren bizitza berreraiki nahi izan duzu. Nor izan zen Josefa Agirre?

Josefa Agirre Etxeberria neskame izan zen bere bizitza osoan. 12 urterekin Azpeititik irten eta beti aritu zen etxeetan “interna” lanean.

Erraza izan al da Josefaren bizitza berreraikitzea?

Hasieratik oso zaila izan zen ez baitzegoen ia dokumentu ofizialik. Ahozko testigantzetan asko oinarritu naiz, baina amama oso pertsona itxia zen eta gauza batzuk berak bakarrik zekizkien. Haren heriotzarekin informazio asko galdu zen.

Nola sortu zitzaizun liburua idazteko ideia?

Bizitza osoa daramat istorio horrekin buruan. Beti pentsatzen nuen horrekin eleberri bat idatziko nuela, baina ez nintzen inoiz idazten jartzen, ez bainuen uste idazlea izan nintekeenik. Txipa aldatu eta Tene Mujika beka ikusi nuen arte. Orduan konturatu nintzen proiektu hau guztiz egokia izan ahal zela amamaren historian sakontzeko eta haren bizitzaren zapalkuntzak aldarrikatzeko.

Informazio ezak bultzatu zintuen ikerketa egitera eta prozesu hori ere kontatzen duzu liburuan. Zergatik?

Zailtasun asko izan nituen informazioa bilatzeko, erabaki nuen nire ikerketa-bidaia ere kontatzea. Gainera, ikerketa egin ahala eta amamaren pausoei jarraitu ahala, haren bizitza nirearekin alderatzeko beharra sentitu nuen. Beraz, horrelakoak kontatzeko, “Istorio paraleloa” deituriko kapituluak txertatu nituen Jose-

faren biografiaren kapituluaren artean.

Zeintzuk izan dira informazio-iturri nagusiak?

Batik bat ahozko testigantzak. Josefaren bizitzaren partaide izan zirenak, alegia. Gehien dakiena Juana Agirre da, Josefaren ahizpa txikia. Baina beste asko hilda zeuden jada eta beste askok ez genekien haren gaztaroko bizitzari buruz ia ezer, berak ez baitzigun ia ezer kontatu. Dokumentu ofizialak topatzea bereziki zaila izan zen. Adibidez, Gasteizera lanera joan zenean, ez da erroldan agertzen lehendabiziko urteetan. Geroago, bai, ordea. Beraz, ezinezkoa da jakitea zer urtetan iritsi zen zehazki. Horrelako gauza asko gertatu zitzaizkidan ikertzean.

Sasoi haietan neskame jardun zuten emakumeei buruzko informazio askorik ez dago, emakume isilduak dira...

Guztiz. Gure amamak ez zuen inoiz bere historia kontatzeko espaziorik aurkitu, gizarteak ez zuelako horrelakorik onartzen. Ez zuen inolako baliorik ama zen neskame ezkongabe batek esandakoak.

Emakume askoren istorioa egongo da Josefarenean. Haren istorioa publiko egitea lagungarria izango zen askorentzat, ezta?

Elkarrek liburua argitaratu zuenetik irakurle asko hurbildu zaizkit haien familietan gertatutakoak kontatzera. Josefaren historiak/istorioak dimentsio unibertsala duelako. Irakurleen aldetik feedback positiboak jaso ditut, eta askok helarazi didate liburua irakurri ondo-



ren gogo piztu zaiela haien familiaren iraganari buruz gehiago jakiteko.

Historialari ere jardun duzu. Zer nolako esperientzia izan da?

Hasieran oso galduta egon nintzen. Baina, gero, onartu nuen historialariaren lana hipotesiak pentsatzean eta horiek ezeztatzean zetzala, ez hainbeste deskubrimendu harrigarriak egitean. Eta hori onartu nuenean, lasaiago egin nuen lan.

Galdera asko erantzunik gabe geldituko zitzaizkizun seguru asko. Konforme gelditu zara? Ikertzen jarraitzeko asmorik bai ala kapitulu hori itxi duzu?

Uste dut gutxinaka-gutxinaka atzean uzten ari naizela. Amamaren bizitza deskubritu dut, eta onartu dut ezingo dudala guztia jakin. Agian etorkizunean galdera batzuen erantzuna bilatu ahalko nuke, baina orain aurrera jarraitzeko gogoia daukat. Nire arbasoen pausoetan oinarrituta, erronka berriei ekiteko beharra sentitzen dut. Eta erronka horietako bat idazlea izaten jarraitzea da.

Amamaren biografia idatzi ahala, esan daiteke zu zeu ere deskubritu zarela?

Bai, bai. Horregatik sentitu nuen nire "Istorio paraleloa" idazteko beharra, deskubrimentu hori liburuan nolabait adierazteko.

Familia, moduren batean, biluztu egin da. Nola hartu dute gertukoek liburua?

Liburuan agertzen diren pertsona guztiek zekiten zer

agertuko zen liburuan argitaratu aurretik, eta baimena eskatu nien. Eta oso ondo hartu zuten denek, nik uste ilusio pixka bat egin zuela...

Ahozotasunetik gertu idatzitako liburua da, erraz irakurtzekoa. Nahita?

Bai. Egia da nire idazteko estiloa zuzena dela, ez oso liriko. Baina liburu honetan nahita bilatu nuen: alde batetik, parte batzuk azalpen-testu dibulgatiboak direlako, eta, beste alde batetik, ahozko testigantzetan oinarritu naizenez, hori nolabait islatzeko. Gainera, nire amak irakurtzea eta ulertzea nahi nuen, eta euskaraz alfabetatuta ez dagoenez, gauzak hizkera xume batekin azaldu nahi nituen. Nire ama bezalako euskaldun asko bizi dira, eta liburu hau haientzat ere izan zedila nahi nuen.

Zeezer darabilzu esku artean?

Bai! Proiektu asko ditut esku artean, bakoitza fase desberdinean. Baina hemendik gutxira buru belarri sartuko naiz fantasiatzko istorio bat idazten.

Zer ari zara irakurtzen?

Bueltatu naiz fantasia irakurtzera nire proiekturako inspirazioaren bila. Bestsellerrak irakurtzen ari naiz: Rebecca Yarrosen Fourth Wing seriearekin nabil, eta irakurtzeke daukat Samantha Shannonen The Priory of the Orange Tree. Euskal literaturan orain dela gutxi Kattalin Minerren Moio irakurri nuen, eta iruditzen zait mundu guztiak irakurri beharko lukeela. Goiatz Landadibarren Eresia ere hasteko gogo handia daukat!



Azaroaren 4ra arte bete daiteke Euskararen Planari buruzko inkesta online

SILBIA HERNANDEZ

Aurtengo urtearen amaierarekin batera amaituko da 2016an onartu zen Eibarko Euskararen Plan Estrategikoaren indarraldia eta, amaiera hurbiltzen ari den honetan, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Eibarren Akebaik planaren balorazio eta diagnostiko prozesua abiatu berri dute. Hamar urte hauetan planaren baitan udalerrian garatutako ekintza eta egitasmoak zenbateraino ezagutzen dituzten herritarrek, eta ea baliagarriak iruditzen zaizkien Eibar herri euskaldunagoa izan dadin jakin nahi dute, eta asmo horrekin sortu dute galdetegia. Eibarrekin lotura duen pertsona orok (herritarrek, ikasleek, langileek, zerbitzuen erabiltzaileek....) bere iritzia, pertzepzioak eta balorazioak eman ahalko ditu.

Aiora Arrieta euskara zinegotziak azpimarratu duenez, “Eibarko euskararen egoerari buruz eibartarrek zein iritziz duten jakitea oso baliagarria da euskara plan berria jorratzeko. Herrian euskararen erabilera sustatzeko edozein ideia edo hobetze-lerro galdetegian plazaratzea eskertzekoa da. Horregatik, Eibarko jendea galdetegia betetzera animatzen dut, haien ahotsa oso baliagarria baita guretzako”. Inkesta azaroaren 4a arte bete daiteke, esteka honetan: <https://labur.eus/eibareusk>.

Partaidetza Mahaia azaroaren 11n

Eibarko Euskara sailak herritarren parte-hartzea bultzatzeko partaidetza mahai bat ere antolatu du, herriko biztanle, elkarte eta eragileei bideratua. Partaidetza mahai horretan inkestan jasotako erantzunak modu sakonago batean osatu eta landuko dira, planaren balorazio eta diagnostikoan ahalik eta irudi zehatzena osatu ahal izateko. Mahai hori azaroaren 11n (asteartea) izango da, Errebealeko bilera-gelan, arratsaldeko 18:30ean.



Altxa Burua Topaketa Orokorra Eibarren izango da

S.H. Altxa Burua I. Topaketa Orokorra egingo dute Eibarren urriaren 25ean (zapatua), 09:45etik aurrera Hezkuntza Esparruan. Euskadiko hiru probintzietako taldekideak bilduko dira lehen aldiz egingo den topaketa horretan, eta egitarauak goiz osoa beteko du. Antolatzaileek azaldu dutenez, egingo dituzten jarduerak guztiak irekiak dira, eta interesa duen edonor joan daiteke. Francisco Villarrek emango duen hitzaldiarekin (gaztelaraz) hasiko da topaketa. Ondoren, 11:00etan Hezkuntzaren digitalizaziorako markoa izango dute hizpide (elebidun), eta 11:30ean Altxa Burua Antolaketa. Atsedenaldira labur baten ondoren, 12:00etan jarraituko dute: oinarrizko baliabideak eta gizarteratze proposamenak aztertu eta gero, bakarrizketa batekin amaituko dute topaketa.

“Eibar: bizikletaren arkitektura” bisita komentatua egingo da bihar

S.H. Eibarko Armagintza-ren Museoak eta Eibarko Udalak *Eibar: bizikletaren arkitektura* izenburuko bisita komentatua antolatu dute biharko (zapatua) eta hurrengo zapatarako (urriaren 25). Egun bakoitzean bi bisita egingo dira: 11:00etan gaztele-raz, eta 12:30ean euskaraz. Errebal Plazatik abiatuko dira biak. Bisita dohainik da, baina plaza kopurua mugatua denez (20 lagun gehienez) aurretik izena eman beharra dago, Armagintza-ren Museora deituta (943 708446) edo mezua bidalita (museoa@eibar.eus).





“Señoras y Señoras” ikuskizun feminista eskainiko da bihar

S.H. Mariola Cubells eta Maria Guerra kazetariak sortu, gidatu eta interpretatzen duten *Señoras y Señoras* lana aurkeztuko dute bihar (zapatua, urriak 18), Coliseo antzokian, 19:00etatik 20:00etara. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kultur Factoryk bultzatua, umorea, hausnarketa eta ikus-entzunezkoa uztartzen ditu ikuskizun feminista honek, eta 60ko hamarkadako emakumeak omendu nahi izan dituzte egileek: “Belaunaldi hori aitzindaria izan zen, inposatutako mugen aurka egin eta gizarte arauak ausardiaz eta umorez eraldatu baitzituen”. *Mejor que nunca. Felices, imbatibles, pioneras* Cubellsen liburuan oinarritu dira lana sortzeko. Ez da sarrerarik kobratuko, baina sartu ahal izateko gonbidapena behar da nahitaez (Kutxabank-en bitartez edo zuzenean leihatilan eskatuta eskuratu daiteke).

Nazioarteko akuarela erakusketa eta master class-a Portalean

S.H. Euskal Akuarelarien Elkarte (AVA-EAE) bere 80. urteurrenaren ospakizunen barruan, nazioarteko akuarela erakusketa ibiltaria aurkeztuko du Eibarren urriaren 25ean (zapatua), 18:30ean, Portalean. Gainera, erakusketa zabaltzearekin batera, *master class* berezi bat egingo da Nono Garcia artistaren eskutik, egun horretan bertan, 11:00etan.



Usartza Txistulari Taldearen kalejira eta kontzertua

S.H. Eibarko Txistularien Alardea, San Juan jaia eta irailean zehar egindako emanaldiak (Arrateko Amaren jaietan, Kofradia Egunean, Aginagako San Migel jaietan eta Zornotzako Txistu Egunean) atzean lagata, Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du domekan (urriak 19), 12:45ean udaletxeko arkupeetan. Aurretik, baina, kalejira egingo dute erdiguneko kaleetan zehar. Enrique Monterok zuzenduko du kontzertua eta, aurreratu digunez, “doinu herrikoiak eta erritmo desberdinak dituzten obrak joko ditugu: fandangoa, kontrapasa, minuetoa, biribilketak... Berezitasun gisa, oraingo honetan txistuaren soinuak xilomarimba izango du lagun, Iñaki Orbegozoren eskutik”. Egitaraua hauek osatzen dute: *Mendiko soinuak* (Jesus Guri-di), *Fandango de Arizu* (P. Hilario Olazaran de Estella), *Minueto* (Bonifacio Laskurain. Mold: J. M^a Glz. Bastida), *Pello Joxepe* (Gerardo Butron), *Contrapas* (Raimundo Sarriegi), *Minueto* (Raimundo Sarriegi) eta *Alborada en cuatro tiempos* (Bonifacio Laskurain).

Zapatuko Ipuinerako izen-ematea

S.H. Zapatuko Ipuina egitasmoaren baitan, urriaren 25ean (zapatua) *Amonaren arima botila barruan* ipuin kontalari saioa egingo da Portalean (areto nagusian), 12:00etan, Maite Frankoren eskutik.



Ipuin-kontaketa 3-10 urte bitarteko umeentzako pentsatuta dago eta dohainik da. Hala ere, aurretik izena eman behar da, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta (urriaren 20tik 23ra).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

3						5	
	4		7	9	6		8
	6					7	
6			3	5			8 2
9	1			8	2		4
		6				2	
7			4	6	8	9	
	9						6

6	9	8	2	7	3	4	1	5
7	2	1	4	5	9	6	8	3
4	3	6	8	1	5	9	2	7
7	4	2	2	6	1	3	5	8
6	1	3	6	8	9	2	7	4
8	5	2	2	6	1	3	5	9
6	7	4	3	3	4	3	3	4
2	6	9	6	8	1	5	9	2
1	4	5	7	6	9	2	7	4
3	8	7	1	2	4	5	9	6


S
u
d
o
k
u
a

1	8	5	3	4	7	6	2	9
6	9	2	7	8	6	2	4	1
2	6	4	5	9	1	8	7	3
8	1	2	6	3	4	4	1	5
3	7	9	2	5	8	1	4	6
5	4	6	1	7	9	2	3	8
6	5	1	7	2	3	6	8	4
7	9	8	4	1	5	3	6	2
4	2	3	9	6	8	7	5	1

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

						7		
		9	8				6	
6	5				3		8	
		6		7	9		3	
3			2		8			6
	1		6	3		5		
6			5				7	3
	3					4	1	
		5						

Kontatu bakoitzetik aurkitzen dituzunak



Urriak 17 / Urriak 23

ZAPATUA 18

DEPOR EGUNA

10:00 Espeleologia, Eibarko errekan. **10:30** Atletismoa, Untzaga eta Txaltxa Zelai. **11:00** Deportonbolia eta denda. Xake-partidak eta xake-erraldoia. Umeentzako txirrindularitza-ginkana. Squash. Toribio Etxebarria kalean. **16:00** Umeentzako sarea eta eskalada. Untzaga. **18:00** Dantzaldia, Kezka Dantza Taldea eta Gasteizko Manuel Iradier Elkarteko dantzarien eskutik. San Andres parroikia, Untzaga eta Toribio Etxebarrian. **20:30** Erromeria, Emepebost taldearekin. Toribio Etxebarria.



BISITA GIDATUA

11:00 eta 12:30 "Eibar: bizikletaren arkitektura" bisita komentatua. Lehenaz gazte-leraz, bigarrena euskaraz. Dohainik, baina aldeaz aurretik izena eman behar da. Hasiera: Errebal Plaza.



ANTZERKIA

19:00 "Señoras y señoras", Maria Guerra eta Mariola Cubells kazetariak sortutako ikuskizun feminista. Doan (gonbidapenarekin). Coliseo.



DOMEKA 19

DEPOR EGUNA

08:30 Udazkentrail 2025 mendi-lasterketa. Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta, Eibarko Klub Deportiboaren eskutik. Hasiera: Klub Deportiboa (Toribio Etxebarria, 16). **11:00** Pilota, Iparraldeko Goizeko Izarrra pilota-taldea eta Eibarko Klub Deportiboko pilotariak (kadeteen eta jubenilen hiru partida). Astelena frontoia.



AZOKA

10:00/14:30 Debabarreneko gazta azoka. Gaztagileak: Mandiola Gañekua (Eibar, ardi gazta), Egotza (Soraluze, ahuntz gazta), Goienetxe (Mutriku, ardi gazta) eta Mausitxa (Elgoibar, ardi gazta). Lizagasar Sagartokixa (Sagarretik ekoizturiko produktuak). Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Debemen. Untzaga.



EZKUR-BILKETA

10:00 Ezkurak bildu, gorde eta ernatzeko irteera, Eibarko Baso Biziak-en eskutik. Ezkur bakoitzeko euro bat bideratuko zaio Palestinaren aldeko plataformari. Untzaga abiatuta.



MUSIKA

12:30 Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzaga.

MARTITZENA 21

BERBETAN JAIA

18:00 Berbetan Jaia. Disko Arima Musika Festa. Errebal Plaza.

ENTSEGUA

18:30/19:30 Koralito abesbatza. Ipuruako Merkatu Plaza.



EGUAZTENA 22

IRTEERA

09:05 Mendi-ibiliak, Ikasten elkartearen eskutik: Saturraran-Berritxu-Ondarroa. Jarduera irekia, doan. Bazkaria eraman. Autobusaren irteera ordua (Untzaga).

EGUENA 23

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatutxtea.

ERAKUSKETAK

Urriaren 19ra arte "Eskala eta zatiak" (Javier Balda) eta "Asmodun elementuak" (Ibon Aranberri). Portalea.

ZINEA COLISEO



"Bala perdida"
THRILLER
2025/AEB/107'
Zuzendaria: Darren Aronofsky
Aktoreak: Austin Butler, Regina King, Matt Smith, Zoë Kravitz, Liev Schreiber, Benito Martinez
Ocasio
Krimena. Komedia beltza.

1 ARETOA
• 18an: 17:00, 19:45
• 19an: 17:00
ANTZOKIA
• 18an: 22:30
• 19an: 22:00
• 20an: 19:30



"KarmeLe"
DRAMA. ERROMANTZEA
2025/Euskal Herria /114'
Zuzendaria: Asier Altuna
Aktoreak: Jone Laspiur, Eneko Sagardoy, Nagore Aranburu, Javier Barandiaran
30eko hamarkada. Espainiako Gerra Zibila. Musika

1 ARETOA
• 18an: 22:30 (VOSE)
• 19an: 20:00
• 20an: 19:30



"Dolores Ibarruri. Pasionaria"
DOCUMENTAL
2025/Espainia /80'
Zuzendaria: Amparo Climent
Aktoreak: Lola Ruíz-Ibárruri, Sergueyeva, Azucena Rodríguez, Carmen Calvo, Cristina Almeida
Biografikoa. Politika. Feminismoa

2 ARETOA
• 18an: 19:45, 22:30
• 19an: 17:00, 20:00
• 20an: 19:30



"Sketch. Cuidado con lo que dibujas"
FANTASTIKOA. ABENTURAK. KOMEDIA
2024/AEB/92'
Zuzendaria: Seth Worley
Aktoreak: Tony Hale, Bianca Berry Tarantino, Kue Lawrence, D'Arcy Carden
Haurtzaroa. Munstroak

2 ARETOA
• 18an: 17:00
ANTZOKIA
• 19an: 17:00

EZ GERATU
GIDATIK
KANPO!

688 62 15 35
publizitatea@etikitto.eus

 **eta kitto!**
euskara elkartea

BERBETAN

jaialdia &
musika festa



Urriak 21, asteartea
18:00-19:00 Errebal Plaza



Lourdes Urzuriaga Bollar

2025/10/11

Nire bidelagun maitea, elkarrekin igo genituen hainbat tontor, eta aurrerantzean ere, mendian gora noanean, zure pausoak sentituko ditut ondoan. Goiko gailurretan, zeruaren ertzean, badakit berriro topo egingo dugula.

- MARKOS -





Lourdes Urzuriaga Bollar

2025/10/11

Eskerrik asko Lourdes; gure buru, lagun eta eredu. Zurekin bizitako oroitzapenak gure bihotzetan betiko geldituko dira, zure indarra eta maitasuna gure bidean gidari.

- AMAIA ETA JONE -





Lourdes Urzuriaga Bollar

2025/10/11

Eskerrik asko ama, hainbeste lagundu diguzulako. Zuk erakutsitako bideari jarraituko diogu tinko, zauden lekutik bidalikoa diguzun indarrarekin.

- IBAN ETA MIRARI -





Lourdes Urzuriaga Bollar

2025/10/11


Mila esker famelixaren izenian Lourdeseri azken agurra emotera gerturatu zinaten guztiei eta famelixari zuen babesba adierazteagaitik.

- ETXEKOAK -





Funeraria Mugica



Funeraria Mugica



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Elbar: Otaola, 27	Elgoibar: Kixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16

Elbar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Lourdes Urzuriaga Bollar

2025/10/11

Eskerrik asko amama, zurekin pasatu dugun denbora hain pozgarria egiteagatik, zurekin egin ditugun bidaietan bazter asko ikusi ditugu eta oroitzapen guztiak bihotzean gordeko ditugu betirako. Amama, ez zaitugu inoiz ahaztuko.

- UGAITZ ETA MARKEL -



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **EIDER!**
9 urte beteko
dittuzu bixar,
urriak 18. Zoragarri
ospatu lagun eta
etxekuekin. Asko
maite zaitugu!



Zorionak **XUBAN!**
Bixar, urriak 18,
urtebete beteko
dozu. Zure irriparra
da gure iparra, beti
gidatzen gaituen
izarra. Amatzu eta
aitatxo.



Zorionak **DANEL!**
5 urte beteko
dittuzulako
hurango
astelehenian.
Musu hundi bat
famelixaren partez.



Zorionak **JULEN!**
Eguaztenean 16
urte egin dittuzu
eta. Segi horrela,
eta musu erraldoi
bat famelixaren
partez.



Zorionak **DANEL!**
Urriaren 20xan 5
urte beteko dittuzu.
Musu haundi bat
famelixa guztiaren
eta, batez be,
Julen eta Markelen
partez.



Zorionak **MIREN!**
Urriaren 19xan,
domeka, 9 urte
beteko dittuzu,
Musu haundi bat
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak **AITOR!**
Gaur 8 urte bete
dittuzu! Maite
zaitugu. Patxo
potolo bat.



Zorionak **JON!**
Datorren
eguaztenian 5 urte
betetzen dozuz
eta. Patxo pila bat
famelixaren eta,
batez be, Elenen
partez.



Zorionak **PAULA!**
Astelehenian 9 urte
egingo dittuzu!
Segi beti bezain
irrifartsu. Musu
potolo bat denon
partez. Maite
zaitugu.



Zorionak **TELMO!**
Hilaren 16an 3 urte
egin zenduaz.
Jarraitu gure
bizitzak irribarre
polit horrekin
alaitzen. Patxo
handi bat etxekoen
partez!



Zorionak **MIKEL!**
Gaur, urriak 17,
13 urte betetzen
dittuzu. Musu
haundi bat
famelixa guztiaren
partez.



Lourdes Urzuriaga Bollar

2025/10/11

Bihotz-bihotzez
eskertzen dizugu urte
hauetan Andirao Eibarko
Baserritarren Elkartearen
alde egin duzun lana. Beti
izango zaitugu gogoan.



- ANDIRAO ELKARTEA -




Pastora Orbea Elorza

(Javier Leginaren alarguna)

2025/10/11

Gure bihotzean
biziko zara betirako



- ETXEKOAK MAITASUNEZ -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Donostia erdialdean bi loge-lako apartamentua negurako alokairuan. Altzariz jantzita. Rosa M^o. 653 733 457.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- 100-200 metro karratu inguruko lokala erosiko nuke. Salneurri merkekoa izatea beharrezkoa da. Karga-deskarga erreza, eguneko argia edo lokalizazioa baloratuko dira. 665732640. Aitor.

3.2. Errentan

- Amañan guztiz hornitua dagoen ileapaindegia alokatzen da, solarium eta guzti. 615 79 87 24.
- Gazteentzako, merkataritzarako edota edozein erabilerrarako lokala alokatzen da. Urkizu Pasealekua 11, behe. 660 084 356

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da orduko garbiketa lanak egiteko. Rosa. 623 96 76 29.
- Emakumea eskaintzen da, orduka, nagusien zaintzarako. Soziosanitario ziurtagiria eta erreferentzia onekin. Garbiketa lanetarako ere prest. 667 06 02 92.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edota ume zein nagusiak zaintzeko. 632 76 86 53.
- Gizonezkoa eskaintzen da zerbitzari lanetarako, garbiketak

egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 632049330.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 641149871.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak pasiatzeko. 617 57 12 10.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko, 09:30etik aurrera. Tel 602 800 266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan, orduka, gauez... 631425686.
- Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 627 69 71 42.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 643464307.
- Garbiketa lanak edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.
- Gizona eskaintzen da edozein lan mota burutzeko: obrak, tabernak, segurtasuna... 617618764.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. 642757640.

4.2. Langile bila

- Eibarko erdigunean dagoen ileapaindegirako eskarmendun estetizista behar da. Lan giro ona. 678 67 42 50.
- Elektrohigadurazko mekanizazio makinan lan egiteko langilea behar dugu. Gutxienez 3 urteko esperientziarekin. 661326127.
- Zerbitzaria behar da asteburuetarako Kultu tabernan.

Euskaraz jakitea baloratuko da. 943208439. Aitor.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako euskarara eta ingelesezko klaseak ematen ditut. Esperientziarekin. 629360924. Naiara.
- Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikeneko irakasle tituluduna. basseak@yahoo.es 652217737.LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Pilates irakaslea eskaintzen da norberaren etxera joan eta klase pribatuak emateko. Gehienez bi ikasle klase bakoitzeko. Adin guztiak eta maila guztiak. 685724192.
- Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. 696 39 55 10.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clinica estetica

Medikuntza | **Kirurgia**

- Dermatologia estetikoa
- Aurrepegi gaitzetsua
- Botoxak
- Besuak, belakak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behe 943 206 044

DR. ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTETICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entrepantia A
625 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



**RS Medikuntza
Estetikoa**
Maria Rosmina Soliz
Salvatierra DOKTOREA

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7

OKULISTAK



Recalde
Clinica Oftalmologica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PODOLOGOAK



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR**
943 203050

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE**
943 799746

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (125 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (125 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

**Mainer
Lopez
Etxeberria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

d.5 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lali
GOMEZ ETA ARRAKALDEZ

Unkizu. 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

**YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)



Ideia on batetik



sortuko da zure negozi**ia**.

L**okal** txar batekin ordea, akabo[†]

Errekatxu Berri da zure
negozioaren giltza; zatoz.

Lokalak eta **garajeak** salgai,
estreinatzeko prest.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir